

DROGETEN



ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2023ko URRIA · 326 zenbakia

**Gora San Martin!
Gora bihotzak!**

ERMUAN KANTUAN

Euskal
Birusa
Elkartea



Azaroaren 25ean
12:30ean



Ugaitz Catalan
eta Beñat Aiertza
musikariekkin!
Zatoz!

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria



Drogetenitturri aldizkaria **etxean jaso** nahi duzu?

Bidali zure **izen-abizenak eta helbidea**

drogeten@gmail.com helbide elektronikora!

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Ume-kantua.

Txikilin maña

(Entzuteko: www.alboka.es)

Txikilin txikilin maña
bixar Santa Maña,
etzi Domun Santu
umia zuluari sartu!



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIAK:

Sara Garcia (2022ko San Martin
Azokako Argazki
Lehiaketako irabazlea).

LAGUNTZAILEAK:

Anaitasuna Ikastola,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López, Nahia Rojo,
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Alboka Musika Eskola,
Anaitasuna Ikastola,
Juanmi Bravo, Nahia Carrasco,
Klemen Corredera,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
Nahia Ruiz Albizuri,
Alex Ugarte
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Nahia Carrasco · Txile

“Maite ditudan pertsonak egunero ez ikustearen falta sumatzen dut”

Nahia Carrasco ermuarrak 20 urte ditu eta duela hilabete batzuk Txilera joan zen bere ikasketekin jarraitzeko asmoarekin. Gaur egun Santiago hiriaren erdialdean bizi da, Txileko hiriburuan.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Zergatik erabaki zenuen Txilera joatea?

Psikologiako 3. maila egitera etorri naiz.

Kostatu zitzaizun hara joateko erabakia hartzea?

Lehenengo momentutik argi izan nuen horrelako esperientzia bizi nahi nuela, karrera kanpora ikastera joateko gogoz geratu bainintzen. Hala ere, hasieran beldur pixka bat ematen zidan, banekielako familia, lagunak eta horko bizitza faltan botako nituela.

Bakarrik bizi zara edota etxea partekatzen duzu?

Santiagoko zentroko egoitza batean bizi naiz, eta Durangoko lagun batekin partekatzen dut gela.

Nola imajinatzen zenuen leku hura? Ze aurreiritzi zenituen?

Egia esan, imajinatzen nuenaren oso antzekoa da: hiri erraldoia eta giro handikoa.

Zerbaitek harritu zaitu?


Jendea da gehien harritu nauena. Oso eskuzabalak eta jatorrak dira, eta behar duzunean laguntzeko prest daude beti.

Hizkuntza aldetik, gaztelaniaz aparte besterik hitz egiten da?

Hizkuntza ofiziala gaztelania da eta Santiagon gaztelaniaz bakarrik hitz egiten dute.

Hemen hitz egiten den gaztelaniaren berdina da?

Ez. Hasiera batean, hizkuntza ulertzeko zailtasunak izan nituen eta oso zaila egiten zitzaidan elkarrizketen





haria jarraitzea, niretzako arrotzak ziren hitz asko erabiltzen dituztelako. Hala ere, hangoei esker ohitu egin naiz: jendea ezagutu ahala hitz berriak ikasi eta ulertzen ditut. Beti nago prest bertakoak diren pertsonak ezagutzeko!

Zer egiten duzu denbora librean? Hemen egiten zenuenaren antzekoa?

Denbora librean, Santiago ikusteko eta hiriko gauza ohikoekin egiteko aprobetxatzen dut, baita hemengo jendearekin harremanetan jartzeko ere. Hor egiten nituen gauza batzuk mantentzen ditudan arren, astean zehar batez ere, nire errutinak ez dauka zerikusirik Ermuan nuenarekin.

Bada, nolakoa da zure egun arrunt bat?

Goizetan, normalean, unibertsitatera joan behar izaten dut; bukatutakoan, lagunekin planak egiten ditut: "cerro" etara igotzea, erretegiara joatea edo iluntzeak ikustea.

"Hasieran, hizkuntza ulertzeko zailtasuna izan nituen, elkarrizketen haria galtzen nuen"

"Aisialdian, bertako menditxoetara igo, erretegiara joan eta iluntzeak ikusten ditugu"



Zein da bertako janari tipikoa?

Gehien jan dudana *choclo*-pastelak eta pinu-enpanadak izan dira, baina egon badaude janari tipiko gehiago ere. Ez da janari guztia pikantea, guztiz kontrakoa, baina badago ia janari guztiekin eskaintzen dizuten oso saltsa pikantea ere.

Zerbaiten falta nabaritzen duzu?

Bai. Gehienbat, maite ditudan pertsonak egunero ikusi ezin izatea botatzen dut faltan. Horrez gain, etxeko janariaren falta ere sumatzen dut.

Gustura zaude?

Bai, oso gustura! Eta pozik nago esperientzia hau bizitzen egoteko aukera izateagatik. Izugarritzko esperientzia izaten ari da!

Noiz zatoz Ermura bueltan?

Abenduan. Hemen oporrak daudela aprobetxatuz, Gabonak etxean pasatzeko itzuliko naiz. Gerora, bigarren lauhilekoa dela-eta, otsailean bueltatuko naiz Txilera.

“Abesten dudanean, gitarra esku artean izateko beharra sumatzen dut”

Iraia Sarasua · Abeslaria



Iraia Sarasua ermuarrak hamar urte inguru daramatza musika ikasten, eta irailean lehen kontzertua eskaini zuen herriko taberna batean. Izaro, Bulego edota En Tol Sarmiento euskal taldeen abestiak ditu gustukoen, eta haien bertsioak eginez gozatu eta gozarazten du. Hamaika saltsatan dabilen gaztea da, eta dagoeneko hurrengo kontzertua lotuta dauka, ikasketekin eta bestelako afizioekin ere aurrera egiten duen bitartean.

Testua **DORLETA VIDAL**

Irailaren bukaeran kontzertua eman zenuen herriko taberna batean. Nolatan?

Egia esan ez neukan aurreikusita, baina London tabernako jabeak egun batean proposamena egin zidan eta onartu nuen. Mutil-lagunarekin batera aritu nintzen bertan: berak kaxoia jo zuen eta nik gitarra eta ahotsa. Gure izen artistikoa-edo Iraia eta Markel da. Esperientzia polita izan zen.

Zenbat abesti jo zenituzten?

Hamar abesti inguru. Denak izan ziren euskarazko kantak *Corazón de tango* izan ezik, eta denak egon ziren kaxoira moldatuta.

Zenbat jende gerturatu zen emanaldira?

Ez dakit zenbat, baina asko! Harrituta geratu nintzen taberna topera ikusi nuenean, eta hasieran beldur apur bat sentitu nuen. Behin jotzen hasita, oso giro polita

sortu zen: familia, lagunak... denak nirekin abesten! **Bukatutakoan zer sentitu zenuen?**

Lasaitasuna! Arnasa hartu nuen! Eta oso gustura geratu nintzen: kontzertua egin dut, ondo irten da, pozik nago, jendea pozik dago...

Aurretik, Alboka Musika Eskolak antolatzen dituen kontzertuetan parte hartu izan duzu sarritan. Gogoan duzu jendearen aurrean eman zenuen lehen kontzertua?

Bai, orain dela asko izan zen, 2018an! Hamabi urte nituen eta oso-oso urduri nengoen! Liburutegi kanpoan dagoen aterpean izan zen kontzertu hura, eta Izaroren *Astelehenak* abestia kantatu nuen. Orain dela gutxi bideoa ikusteko aukera izan nuen, ai ama!

Lehen kontzertu hartatik Londoneko emanaldira...

Orokorrean oso pertsona urduria naiz, baina bi emanaldietan oso urduri egon nintzen arren, oso



Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



sentsazio ezberdinak izan nituen batean eta bestean. Gaur egun seguruago sentitzen naiz abesten dudanean, segurtasun handiagoa daukat nire buruarengan.

Hortaz, errepikatzeko moduko esperientzia izan da?

Bai, zalantza barik, eta dagoeneko beste kontzertu bat daukagu lotuta: urriaren 28an Eibarko Gaztetxean, 16:30ean.

Besterik daukazue lotuta?

Momentuz ez, lasai hartzen dugu, baina baliteke laster apur bat mugitzen hastea.

Zein da zure formakuntza musikala?

Zortzi urterekin hasi nintzen Alboka Musika Eskolan. Bost urtez solfeo ikasi nuen, eta gero gitarrari ekin nion. Instrumentua hartzearekin batera, abesten hasi nintzen eskolan bertan.

Eskolan bertan eta kalean ere, ezta?

Bai, Musika Eskolak kontzertuak antolatzen ditu urtean zehar, data berezietan (Gabonetan, Santa Zezilia egunean, ikasturte bukaera...), eta hasieratik animatu nintzen.

Horrelakoetan, bakarrik edo taldean abesten duzu?

Gehienetan bakarka aritzen naiz, gitarra espainolarekin, baina batzuetan *modernako* taldearekin ere jarduten dut, gitarra elektrikoarekin. Noizbehinka, nik abesten dut, eta gainontzeko musikariek instrumentuak jotzen dituzte.

Nola zaude erosoago, bakarrik edo beste musikari batzuekin batera jotzen duzunean?

Bietara nago gustura, baina bai bakarka bai taldean abesten dudanean, gitarra jotzea gustatzen zait. Horren beharra daukat.

Zenbat entseatzen duzu?

Musika Eskolan astean hiru egunetan ditut entseguak; etxean, egunero. Denbora daukadan bakoitzean gitarra hartu eta abesten hasten naiz.

Zuk aukeratzen dituzu kantazen dituzun abestiak?

Bai, bertsoiak izaten dira beti. Izaroren abestiekin hasi nintzen, asko gustatzen zaidalako, eta gainera, esaten

"Denbora daukadan bakoitzean, gitarra hartu eta abesten hasten naiz"

"Izaroren abestiak oso gustuko ditut, eta esaten didate antza handia daukagula abesten"



didate antza handia dugula abesten. Bulegoren abestiak ere jo izan ditut, Nogenenak... Orain *modernako* taldearekin abesti rockeroagoak ere abesten ari naiz.

Zure emanaldietako bideoak nonbaiten ikus daitezke?

Youtuben aspaldiko gauzak daude. Berrienak instagramen daude, iraiia_7 kontuan.

Musikazalea zara?

Bai, asko gustatzen zait musika: Izaro, En Tol Sarmiento, Gatibu... euskal musika. Kontzertuetara joan ohi naiz, eta ikusi dudana azken taldea Rotten XIII izan da.

Zein da zure abeslaririk gustukoena?

Izaro. Elkar ezagutzen dugu, eta haren kontzertuetara joan izan naiz behin baino gehiagotan.

Ametsa izango litzateke berarekin batera abestea?

Uff, asko gustatuko litzaidake!

Jo dituzun abesti guztien artean, badago baten bat bereziki gustatu izan zaizuna?

Denetan sentitu naiz eroso, baina agian En Tol Sarmientoren *Heldu da garaia* nabarmenduko nuke. Antzokian jo nuen gitarra konboarekin, nirekin batzuetan abesten duen Ekaitz Prieto ermuarrarekin batera, eta oso polita geratu zen, asko gustatu zitzaidan.

Euskarazko kantak beti...

Bai, gehienetan bai, hobeto moldatzen naiz.

Ermuan antolatzen diren euskarazko ekitaldietan ere parte hartzen hasi zara...

Bai, iazko Euskaraldiaren aurkezpenean abesti pare bat abestu nituen: Korrikarena eta Ermuan Bagarakoa, oker ez banago. Parte hartzeko eskatu zidaten eta ni pozik.

Nesken edo mutilen bertsioak egitea nahiago duzu?

Berdin zait, ez ditudalako abesti originalak berdinderdin kopiatzen. Kantak gure ahotsetara eta

"Kontzertuetarako euskarazko kantak aukeratzen ditut gehienetan, hobeto moldatzen naiz"**"Musikaren munduan jarraitu nahiko nuke, egungo formatoan: taberna txikietan edo plazetan"**

Iraia Sarasua Alboka Musika Eskolako ikasturte amaierako ekitaldian, ekainean. Harekin batera, Ekaitz Prieto, Gorane Sampedro, Maria Vivian eta Jokin Lugarizaristi.

erosotasunera moldatzen ditugu.

Esenatokira igotzean, zer nolako garrantzia dauka estetika zuretzat?

Ez diot garrantzi handirik ematen. Saiatzen naiz apur bat gehiago apaintzen, baina normal joaten naiz.

Zer asmo dituzu aurrerantzean? Nola irudikatzen duzu etorkizuna?

Ikasketei dagokienez, Batxilergoa bukatu dut eta Haur Hezkuntzako modua ikasten ari naiz. Horrez gain atletismoa praktikatzen dut, gorako jauzia hain zuzen ere, eta horrekin ere jarraitzeko asmoa daukat. Musikari dagokionez, mundu honetan jarraitu nahiko nuke, egungo formatoan: taberna txikietan edo plazetan jotzen.

**ZUZENBIDE KONTUAK**

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK

Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxela
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA

Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

“Mallabiko palazioko ugezaba-andrak harrokeri bakuek zien”

Clarita Retolaza · Markina Ugarte familixan langilie



Idatzizko dokumentu batzutan Mallabiko Ametzaga (Ametza) palaziue Arana modure dator jasota. Nundik etorriko izendapen hori eta gure harridurarako jabietako baten senarran abizenetik. Baina benetako etxejaunek, andrazkuek izan arren be, Benita eta Josefina Markina izan zien eta Clarita Retolaza eurenien biherrien egondako busturiarra; ondo akorduen dittu orduko denporetakuek eta Berrizen egon gara berakin kontu-kontari.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Bost urte egon zan Clarita Retolaza Benita eta Josefinan Berrizko etxien biharrien, Etxezuri modura ezagutzen dan eliza pareko harrizko etxe kuadro ederrien, gaur eskola. Lehenagotik bere bi ahizpa egondakuek zien zerbitzen eta ama eurenak be Busturin euezenien artatu zittuen. Zeozer ikasteko modue zala iñon etxien biherria eitte hori eta sukaldien ekin otsen berak. Jateko kontuetan, palazioko familixakuok ez ei zien bapebe espezialak “han beti etxeko jatekue, danetik. Eta egun seinalauetan, pixkat hobetxuaue”, Claritak gogoratzen dabenez.

Ez ziren gastatzaileak “harek zereuki daben! Ez dakit ba ez eben pentsatzen bixer etzirako faltako jakuela-edo. Komodidade gitxiko etxie zan, haundixe, kalefazinorik bakue. Bainerie eken eta bertara botatzeko ur berue geuk berotu biher izaten genduen, sue einde. Egurretan gero... zer gure eta haxe! Erreteruei ipiñitte eken urtien egunek egurre preparentako, bai Mallabikuei eta

bai Berrizkuei, euren egun diferentietan. Eta han etorten zien, euren tokamena eukitzen ebenien, egurre txikitzen; garajie zan lekue eukitzen gendun dana egurrez beteta gorainok. Propiedade kontuetan aberatsak zien eta terrenuetan be, zer gure eta haxe! Baina laguntzeko be gertu beti”, diñosku Berrizera ezkondu zan andra kontulari honek.

Giro euskaldune

Esatan dan modure “etxe ona” izanda be, Claritan esanetan “etxe normal bat” zan tratuari erreparau ezkeru. “Tratuen onak zien gurekin, eurak euren kontuek



Josefina neskatotan.

"Erreteruei ipiñitte eken urtien egunek egurre preparentako, bai Mallabikuei eta bai Berrizkuei"



Josefina eta Benita Markina, eta honen senarra, Gregorio Arana.

"Ahizta bixek euren artien, euretara, euskeraz eitten eben eta euren gizonekin erderaz"

eta guk geuriek, gu gazte modure. 'Ugezaba-andrak gara eta zuek gure bihargiñek' eta holako harrokeri usañik sekula be ez zebeñ erakutsi. Euren orduke-eta

baekez: merixendie, bostetan; afarixe, zortziretan... baina etiketarako eta holako gauzetarako ez zien bapebe". Uniformez jantzitze egon biher zien eta erosketak eittera be halantxek juañ biher, bapebe gustau ez arren be. "Ez neuan de akuerdo, baina uniformiaz urtetzen genduen", dinosku irribarretsu. Gaztetako gauzak be kontatzen ebezen, "gogue eitten jakuenien, ezkatzera etorten zien, gu iguel plantxan eta kontu batzuk entzunaz, gustora egoten zien, saltsan: nobedadiek baeuazen jakin, herriko barri euki...".

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
 ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 • 659 75 74 59 • 943 53 92 23

ANTXITXIKETAN AISIALDIA
 • Diputazio kalea, 8 - 10, behea.
PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

☎ 943 576 124 🕒 10.00 - 13.30
 📞 747 453 607 🕒 15.30 - 19.30

📍 Antxixiketan 📧 Info@antxixiketan.com

"Propiedade kontuetan aberatsak zien eta terrenuetan be, baina laguntzeko be gertu beti"

Ahizta bixek euren artien, euretara, euskeraz eitten eben. "Euskaldun-euskaldun euskaldunek zien. Gurekin euskeraz dana eta euren gizonekin erderaz; bisitaren bat baeuen erderara pasatzen zien, baina giro euskaldune euen han etxien".

Gregorio Arana zan Benitan gizona eta Nicolas Learreta Josefinana eta senarrokin ondo eruten ziela aipatzen dau Claritak. Gregorio, Portugaleteko alkate izan zan, baina politikaz ez zan etxien berba askorik ebalten. Gainera "ez zien gerrie ipintzailliek" Claritan ustez.

Benita izaera gogorrekuau e zan, brist-braust eitteku e, erabakixek hartu eta agindu, autoritaria samarra. Josefin a isilau e zan, diskretuau e, pertson a ona. Jantzi politxo, dotore jantzen e zien, atenziñua deittu barik hori bai. Mallabixen ondo ikusitte e u a z e l a



Benita Markina Ugarte.

gogoratzen dau Claritak eta goguan daka be bai urtero zelan eitten eben egun bat Ametza palazixuen garbittasun sakona einaz: gogoratzen dau z bertako muebliek eta kurtiñak eta lurreko egur ederrak eta harek garbitzeko botatako aguarras usaina...

Palazioko andren zaletasunengaitik galdetuta, leitzekuek ziela diñosku Claritak. "Arratsalde erdiko merixenda ostien lekturara emoten otsien hantxe salatxuen eta horretan emoten eben denporie,

ze ez zien hara eta hona juatekuek. Etxezaliek zien, etxeko jentie zan. Hori bai, urtero 3-4 eguneko egotaldixe eitten eben Bilboko Arana Hotelien, Zazpi Kalietan; beste egunpasaren bat Donostian eta kitto, hantxe amaitzen zien haren jun-etorrixok".

Benita Berrizen hil zanien errenteruek gaubelak ein zotsiezen "gau bat Mallabikuek eta bestie Berrizkuek, eta hori seguru dakit ze goixien kafe banatu notsien neuk, gaba samurraue eitteko", azpimarratzen dau. Benita eta Gregorio lehenago zendu zien; Josefin a eta Nicolas geratu zien familixiaren ondasun guztien jabe. Dohaintzan emon zittuezen hainbat lursail Berrizen zein Mallabixen "eskolak eta deporterako lekuek eitteko; gainera esanda laga eben biher dabiezen metro danak hartzeko. Borondate on-ona erakutsi eben herrixandako", aittatu dosku Berriztartutako busturiar honek.



Josefin Markina Ugarte.



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak
Persianak / Segurtasun pertsiarik / Persiana dekoratiboak
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Urriko jaiak

Urriak 27, ostirala

- 16:30** Buruhandiak, eskolatik parkera.
17:00 Txondor Herri Kirol taldearen erakustaldia parkean.
18:00-20:00 Etxebarria aita- seme trikitilariak kaleak girotzen.
18:30 II. Kickboxing/Boxeo gaua herriko frontoian. Sarrera: 15 €
18:30 Txupinazoa udaletxeko balkoitik.
19:00 Elizpeko pilota txapelketaren finala elizpean.
20:30 Hanburgesa pintxoak parkean (euro 1).
21:30 Aiama eta Akerbeltz taldeak parkean.

Urriak 28, larunbata

- 9:00** etatik aurrera Frontenis maratonia (bikoteka) herriko frontoian.
11:00 Duetlo txikia herri barruko zirkuituan.
12:00-15:00 Mallabiko VI. Ardao Ferixie probalekuan. Jardunaldi gastronomikoa ardo dastaketarekin, urdaiazpikoa ebakitzeko ikastaroa, gazteentzako gastrotailerrak eta bakailao *show cookinga*. Sarrera: 7€
16:00-19:00 Txiki-txef umeentzat parkeko anfiteatroan.



- 18:00** Kale animazioa Burrumba txarangarekin.
22:30 Kontzertua parkean: Gozategi, Merina Gris, Hofe X 4:40 eta TOC.

Urriak 29, igandea

- 9:00** etatik aurrera Frontenis maratonia (banaka) herriko frontoian.
11:30-15:00 II. Autoen Slaloma Goitondo Beheko Lau.
16:30 Katapuntxispuna ikuskizuna umeentzat herriko frontoian. Ondoren txokolatada.
17:00 Mus txapelketa Kontzejuzarrean.

Antolatzaileak: Mallabiko Udala eta Herriko Elkarteak.

GAU BELTZA 2023

URRIAK 30 IPUIN KONTALARIA. AMAIA EGIDAZU. LIBURUTEGIAN
 ILUN ETA BELTZ. DARDARKA JARRI BAIETZI
 17:00ETAN HH 3-4-5
 18:00ETAN 1. MAILATIK GORA

URRIAK 31
17:00ETAN GINKANA. KONTZEJUZARREAN HASITA.
 * 1. mailatik gorakoentzat.

18:00ETAN KALABAZAK HUSTU; AURPEGIAK ETA KARETAK MARGOTZEA. KONTZEJUZARREAN.
 * Bakotzak bere kalabaza, tresnak eta arropak ekarri behar ditu. Haur bakotzarekin gutxienez heldu bat.

PHOTOCALL-A
19:00ETAN ILUNTASUNA PIZTU... EKITALDIA! PLAZAN.
 Koplak abestu! Su! Su inguruan dantzatu!
 Kalabazak piztu! Argiak itzali!

ONDORREN: Herritik kantu erronda!
 eta
 Txorizo pintxoak!

BUKATZEKO: Trikiti poteoa TAKITTOrekin!
 KONTZERTUAREN ONDORREN: Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ezbeharren kargu egingo.

AZAROAK 1, 19:00ETAN
 HERIOTZA DUINA HITZALDIA. KONTZEJUZARREAN.
 Anakotz Lasarte eta Inaki Peña

HERRI FEMINEA | SA TXU BA | Mendibil etxekoak | gaubehazaren | Mallabiko Guraso Elkarte

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
 Telefonoa 943 17 04 14

MEDITERRÁNEA
 VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Kardinale plaza 6 Ermua, Bizkaia | mediterranea_vintage
 678 359 337 | mediterranea.vintage

Bitxi-denda | Tailer propioa | Erloju-denda

Senén
 1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

Son Pelayo zeharbidua 4 ERMU (48260) BIZKAI
 www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
 Irish tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
 Asteburuetan 10:00etatik.

Kontakutua z/g: 941010527

Azaroaren 11n burutuko da San Martin Azoka, eta egitaraua prest dago jada

Euskal Birusak antolatzen duen San Martin Azoka ate joka dago, eta Elkarateak dagoeneko prest dauka aurtengo egitaraua. Adin eta gustu guztietarako ekintzak izango dira aurrean ere, goizetik gauera arte burutuko direnak. Gozatu!

11:00

Plazan: Postuak, dantzak, saiheski-pintxoak, taloak eta artaldearen jaitsiera.

Santiago plazan: Artisauak.

Martxoaren 8a plazan: Abereen eta hegaztien erakusketa.

Herriko kaleetan barrena: Bizkaiko gaiteroak eta Alboka Musika Eskolako trikitilariak.

Probalekun: Idi pareak.

San Martin plazan: Kulki umeentzako jolasak.

Komentukua kalean: Herri-kirolak.

Goiko parkean: Ikastetxeen postuak.

12:00

Betiko talogileei omenaldia.

13:30

Sari banaketa postuz postu.

14:00

Artaldearen igoera.

18:30

Kalejira Bizkaiko gaiteroekin.

19:00


Errifa zozketa, larraindantza eta argazki lehiaketaren sari banaketa plazan.

20:00

MP5 erromeria plazan.

Gainera, 15:30ean ohiko **babajana** herrikoia burutuko da Merkatu Plazan. Tiketak salgai daude dagoeneko Euskal Birusaren bulegoan (Erdikokale 2, 1).

Antolatzaileekin **kolaboratu** nahi dutenek (azokaren muntaian edo bukatutakoan jasotzen, talo edo saiheski postuan, errifak saltzen...) jarri harremanetan 943 17 93 50, 688 63 28 74 edo euskalbirusa@gmail.com helbidean. Animatu!!



Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Ferretería
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Euskal Birusak antolatutako bertso saioa burutuko da urriaren 27an

Urriaren 27an, ostirala, lehen mailako bertsolariak bilduko dira Ermua Antzokian, Euskal Birusa Euskara Elkarteak antolatutako bertso jaialdiari esker. Sarrerak salgai daude dagoeneko, hamar eurotan, eta aurrez aurre edo Internet bidez eros daitezke.

Urtero legez, bertso jaialdia antolatu du Euskal Birusa Euskara Elkarteak San Martin Azokaren bueltan eta, urtero bezala, lehen mailako bertsolariak izango dira Ermua Antzokiko oholta gainean, Euskal Herriko toki ezberdinetatik etorrira: Uxue Alberdi elgoibartarra, Saioa Alkaiza iruñarra, Amets

Arzallus hendaiarra, Onintza Enbeita muxikarra, Maialen Lujanbio hernaniarra eta Jon Maia urretzuarra. Gai-jartzaile lanetan, aldiz, Amaia Agirre bertsolari billabonatarra arituko da.

Sarrerak salgai

Saioa 20:30ean hasiko da, eta bertara joan nahi dutenek aldeaz aurretik erosi ahal izango dituzte

sarrerak. Horretarako hainbat bide daude: aurrez aurre Lobiano Kulturgunean (astelehenetik ostiralera 9:00etatik 21:00etara); Internet bidez tickets.kutxabak.es helbidean, edo Kutxabaneko orotarako kutxazainetan. Aldez aurretik erosi nahi ez dutenek, egunean bertan eskuratu ahal izango dute sarrera, Ermua Antzokiko leihatilan, ekitaldia hasi baino ordubete lehenago. Sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

Euskal Birusa Euskara Elkarteak Ermuko Udalaren dirulaguntza jaso du ekitaldi hau antolatu ahal izateko.

San Martin Kulturala 2023

Bertso jaialdia

Jon Maia	Maialen Lujanbio
Saioa Alkaiza	Onintza Enbeita
Amets Arzallus	Uxue Alberdi

Ermua Antzokian,
urriaren 27an,
20:30ean

Gai-jartzailea:
Amaia Agirre

6. Goiko parkea

Ikastetxeen postuak

6

5. Probaleku

Idi para

5

2. Santiago plaza

Artisauak

2

3

3. Komentua kalea

Herri-kirolak

San Martin Azokako guneak

7. San Martin plaza

Umeentzako jolasak

1. Plaza

Postuak
 Dantzak
 Saiheski-pintxoak
 Taloak
 Talogileei omenaldia
 Errifa-zozketa
 Larraindantza
 Erromeria...

4. Martxoaren 8a plaza

Aberen eta hegaztien
 erakusketa

✚ Artaldearen jaitsiera, Bizkaiko gaiteroak, Alboka Musika Eskolako trikilariak, kalejirak, sari banaketak...

Ermuko asanblada irekia lanean dago azaroaren 30eko grebari begira


Mugimendu feministak greba feminista orokorra egiteko deia zabaldu du eta, deialdi horrekin lotuta, Ermuko Koordinadora




Feministak bultzatutako asanblada irekietan, hainbat talde eta erakunde, feminista eta misto, biltzen hasi dira Lobianon, asteazkenetan 20:30ean. Asanblada honen helburuak dira elkarrekin hausnartzea, grebarako aliantzak artikulatzea eta mobilizazioa antolatzea, eta bilera irekiak dira. "Zaintza-lanak ezinbestekoak dira denon bizitzarako, eta ezin dute ikusezin izaten jarraitu langile-klaseko emakumeen kontura —adierazi dute mugimendu feministatik—. Horregatik, aktibatu egin gara, egungo zaintza erregimena -kapitalista, heteropatriarkala, arrazista eta merkantilista- aldatzeko asmoz". Greba orokorra egiteko deialdia zabalteaz gain, Herri Akordioa aurkeztu dute, zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde.

Ermuan Kantuan burutuko da azaroaren 25ean

Azaroaren 25ean, larunbata, Ermuan Kantuan kalejira burutuko da, 12:30ean hasita. Ekimena herritar guztiei dago zabalik, eta oraingo honetan Ugaitz Catalan eta Beñat Aiartza musikariek alaituko dute ekitaldia, gitarra bana eskuan hartuta.



Peio Goikoetxea ermuarrak txirrindularitza utzi du



Azken urteotan laranjaz jantzita ikusi dugun Peio Goikoetxea txirrindulariak agur esan dio bizikletari, urriaren 5ean bere Facebookeko kontuaren bitartez zabaldu zuen mezuaren arabera. Eskertuta afizionatu mailan eta profesioaletan babesa eskaini dioten guztiei, bide eta amets berriei heltzeko garaia dela azaldu du.

"Ermua Palestinarekin" plataformak manifestazioa deitu du

Israelen eta Palestinaren arteko gatazkaren harira, "Ermua Palestinarekin" ekimena sortu da Ermuan, eta manifestazioa deitu du urriaren 27an, ostirala, 18:30ean plazatik irtenda. Plataforma horren helburua da Israel Gazako zerrendan egiten ari den genozidioaren aurrean erantzun bateratua ematea, haien esanetan. "Kalera irten behar gara, eta gure agintariei eskatu behar diegu Israeleko estatuari ematen dion babesa bertan behera uztea. Gure gobernuari exijitu behar diegu Israeli zigor ekonomikoak berehala ezartzea eta boikota egitea, Errusiarekin egin duten bezala", azaldu dute plataformako kideek.

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ileapaindegia

Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474

688819336

Azaroan burutuko da 'Tripontziak' ekimenaren 10. urteurrena



Azaroaren 3tik 26ra, Tripontziak ekimen gastronomikoaren hamargarren edizioa burutuko da Debabarrenean, Debegesa Garapen Agentziak eta Debabarreneko Klub Gastronomikoak antolatuta. Aurten bost jatetxe parte hartuko dute: Ermuko Mendiolak, Eibarko Baratze Gourmet-ek, Elgoibarko Belaustegik, Soralueko Txurrukak eta Mutrikuko Pikuak, eta sasoiko eta tokiko produktuekin prestatutako menuak eskainiko dituzte. Menuok 35 euroko prezioa dute, eta barne hartzen dute aperitibo bat, sarrera, bi plater nagusi (okela eta arraina) eta Mendaroko txokolatarekin egindako postrea. Ogia, kafea eta ardoa ere menuan sartzen dira: Garcia Olano upategiko ardo zuria eta Aimarez upategiko ardo beltza. Hala ere, sei euro gehiagoren truke, Ehun

ardo onduaz eta Sagarmiña txakolinaz gozatu ahal izango da. Jatetxe bakoitzak eskainiko duen menua debabarrenaturismo.com webgunean ikus daiteke eta, menua jatera animatuz gero, beharrezkoa da aurrez jatetxera deitu eta erreserba egitea, adieraziz Tripontziak Menua dastatu nahi dela.

Zozketa, bisita gastronomikoak eta kulturalak

Aurreko urteetan bezala, aurten ere zozketa egingo dute. Parte hartzeko, Tripontziak zozketako kupoia eskatu beharko da bost jatetxeetako batean, datuak bete eta establezimenduan bertan entregatu. Parte-hartzaile guztien artean hainbat sari zozkatuko dituzte.

Bestalde, aurreko urteko arrakasta ikusita, Tripontziak egitasmoak irauten duen bitartean (azaroaren 3tik 26ra), bisita gidatu kulturalak eskainiko dituzte bailarako hiru lekutan: Mutrikuko Arrietakua Jauregian, Eibarko Armagintzaren Museoa eta Debako Santa Maria Elizan. Zapatu goizetan, berriz, bisita gastronomikoak egiteko aukera eskainiko dute, besteak beste: Chocolates de Mendaro-ra, Goienetxe gatzandegira, Lizagar Saragartoki sagardotegira edota Lasturko Taloak ekimenera. Azaldu dutenez, bisita horietan bertako produktuak nola egiten dituzten ikusi eta dastatzeko aukera eskainiko dute.

Bisitak doakoak dira, eta dagoeneko parte hartzeko izen-ematea zabalik dago, Debegesaren 943 82 01 10 telefonoan edota turismoa@debegesa.eus helbide elektronikoan.

Debabarreneko ESik abian jarri du Amagandiko Edoskitzearen VIII. Argazki Lehiaketa

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek bpsosidebabarrena@osakidetza.eus helbidera bidali beharko dituzte amagandiko edoskitzearekin zerikusia duten irudiak, azaroaren 13a baino lehen. Epea agortuta, irabazlea aukeratuko da eta honek saria jasoko du abenduan, Mendaroko Ospitalean burutuko den ekitaldian. Informazio gehiago jasotzeko Debabarreneko ESiren webgunera jo daiteke.



LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96
@LEYTHEBARBER
C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)





quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
www.quetzalmoda.com
Zubiaturre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065

Juanmi Bravo · Berbalagun egitasmoaren dinamizatzailea

“Berbalagunen, linguistikoki atsegina eta eroso den espazioa eskaintzen dugu”

Berbalagunek hamar urte beteko ditu aurten Mallabian, eta 22 Ermuan. AEKren Praktikatuzerbitzuak sortua, herri bietako Udalek babestutako egitasmoa da, eta dinamizatzailea den Juanmi Bravok haren gainekoak kontatu dizkigu.

Testua **DORLETA VIDAL**



Zertan datza Berbalagun egitasmoa?

Euskaraz hitz egin nahi duten herritarrak harremanetan jartzen dituen ekimena da (bai euskara gutxi dakitenak bai euskaraz hitz egiteko ohitura daukatenak). Parte-hartzaile hauek taldeka batzen dira giro informalean euskaraz hitz egiteko, astean ordubetez. Edozein euskaldunek parte har dezake, egitasmoan dauden bi roletako bat aukeratuta: bidelaria eta bidelaguna. Lehenengoak izena ematen du praktikatzeko zailtasunak dituelako: lagun edo familia euskalduna ez duelako, euskaraz hitz egiteko erraztasunik ez duelako... Berbalagunek linguistikoki atsegina eta eroso den lekua eskaintzen dio. Bestetik, bidelaguna daukagu: euskaldun osoa, euskara normaltasunez erabiltzen duena, maila ona duena, eta bere eguneroko bizitzan euskara integratuta duena gaztelania duen bezala. Bidelagunek bidelariei laguntzeko parte hartzen dute, hori da proiektuari egiten dioten ekarpena.

“Erraza da!” dio Berbalaguneko aurtengo leloak. Zer adierazi nahi dute bi hitz horiek?

Oso erraza dela ekimenean izena ematea: nahikoa da telefonoz deitzea (663 07 04 92), WhatsAppa edo mezu elektronikoa bidaltzea (ermua_berba@aekeus), eta adieraztea zein egunetan bildu zaitezkeen. Hortik aurrera, koordinatzailea arduratuko da zurekin harremanetan jartzeaz eta non eta noiz batu behar zaren jakinarazteaz.


Nola doa aurtengo izen-ematea?

Aurten jada 70 lagunek eman dute izena eta, epea amaitu bada ere, oraindik ere izena eman daiteke. Ermuan, iaz egon ziren zortzi taldeek martxan jarraituko dute: lau goizez eta beste seiak arratsaldez.



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



TxALAPARTA
ABERNA

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdalazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGUAK
943 030 299

Egunero dago talderen bat, eta txandaka lan egiten dutenek goizez eta arratsaldez parte hartzeko aukera izango dute, lanaren arabera. Mallabian, aldiz, talde arrunt bat dago, ostiraletan batzen dena frontoian, eta saiaturko gara eskolan Gurasolagun taldea egon dadin.

Beraz, badaude ere gurasoei zuzendutako taldeak...

Bai, Berbalagunen hainbat azpiproiektu daude, tartean Gurasolagun, non umeek eta gurasoek parte hartzen duten, eta helburuetako bat da gurasoek umeei eredu ona ematea, eta beste helduekin euskaraz hitz egin dezaketela erakustea.

Taldeetako jardueraz gain, Berbalagunek hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar, ezta?

Bai, Berbalagun proiektuak bi oinarri ditu: berbataldeak eta ekintza osagarriak. Ekintza hauen helburua da produkzio-ordu gehiago egotea, Berbalaguneko kideak ez direnei parte hartzeko aukera ematea, eta batez ere taldean jarduten dutenak bere isolamendutik ateratzea eta beste berbalagunkideak ezagutzera: euskarazko



Aurtengo "Mallabitarrok egina" ekimena.



2013-2014 ikasturtean burututako ikastaroetako bat.


pintxo-potea, gurasolagun irekia eta irteeraren bat, besteak beste. Azken finean, euskal sarea sortzea da helburua, eta jakitea nork hitz egin dezakeen euskaraz, hasieratik euskarazko harremanak sortzeko.

Ekintza horien artean zein nabarmenduko zenuke?

Eremuan, helburu hori lortzeko berariaz sortutako ekintza aipatuko nuke: Berbalagunen Topaketa, hain zuzen ere. Ikasturte bukaeran burutzen da, eta berbalagunkideek oparien trukaketa egiten dute plazan. Azken bi urteetan burutu dugu, eta ekintza arrakastatsua izan da. Bestalde, Mallabiko perlatxoia "Mallabitarrok egina" ekimena da: aurten 9. eta 10. edizioak burutuko ditugu, eta lagun asko batzen ditu.

Datozen urteotan berritasun gehiago ikusiko ditugu Berbalagun egitasmoareen inguruan?

Bai, gaur egun herriko elkarte ezberdinekin harremanetan gaude proiektu berriak martxan jartzeko asmoarekin, baina oraindik lanketa prozesuan gaude.



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer




Horacio Decoración
TAPIFERIA - ALIZARIKAE - OSAGARRIAK



VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com





Plazako frontoiko horman, zabalean, elizaren dorrearen isla.
Argazkilaria: Klemen Corredera.

Ikasturte hasierako egonaldiak

Ikasturteari gogotsu heltzeko, seigarren mailako ikasleak Orioko Txurruka aterpetxera joan ziren hiru egun igarotzera, irailaren 13tik 15era. Bertan, hondartzaz gozatzeaz gain, igeriketa, surfa (Zarautzen) eta kayak (Orion) jarduerak egin zituzten. Gaubelaz ere gozatu, eta giro paregabearen primeran pasatu zuten.



Laugarren mailakoak ere, beste ikasturte batzuetan bezala, Baratzera joan ziren. Eguraldi ederrak lagunduta, bertako inguruaz eta animaliez gozatu zuten.

Baso eskola

Anaitasuna Ikastolako HHko 4 eta 5 urteko umeak "Baso eskola" proiektuan murgilduko dira aurten. Haurrek ingurune naturalean jolastu, ikertu eta ikasteko aukera izango dute, naturak eskaintzen dituen onurak aprobetxatuz eta natura bera eta bioaniztasuna babestuz. Egitasmo hau aurrera eramateko, irakasleek formazioa jaso dute eta berehala jarriko dira martxan.



Badator San Martin Azoka!

Aurten ere, Anaitasuna Ikastolak San Martin Azokan parte hartuko du. Bertan, gure eskolako komunitateak eskainitako produktuak salgai egongo dira. Gerturatu zaitzete! Egun zoragarria izango da!



**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Goienkale 12 *Ilargi-geandegi bat
baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitutako burua
garbitzeko konketa



Caperos


Probaleku z/g
(ERMUA)

**Pintxoak
Razioak
Kaxolak**

**Plater konbinatuak
Ogitartekoak**

699 292 043
636 549 154

La Brasileña dastategia



Fachadas Oeste y Mediodía.

Zubiaurre eta Baldespina Markesaren arteko etxe-multzopian, urte luzez egon zan La Brasileña dastategian izena mantendu dau herritarren ahotan, gerora beste jarduera mota batzuk egon diran arren. Haren aurretik be izan ziran batzuk: 1966 urtian Juan Rayak Confecciones Ermua zabaldu zeban bertan, janzteko, etxerako eta biharrerako erropiakin; 1968an Mari Carmen Totorikak jarraitxu zotsan, Cardin izena jarritxa boutique barrixari. 1983ko uholdien ostian itxi zeban beronek eta, hilabete gitxira eta jardueraz guztiz aldatuta, Andoni Taboadak Delicias izenakin zabaldu zeban La Brasileña modura ezagunaua egingo zan dastategia, bertan saltzen zeben kafe marka horren kartelari erreparauta. 1989an Jose Románek oratu zotsan eta 2000tik aurrera, 16 urtez, Maite Gisasolak. Kebap bat da gaur egun: Fastfood Ermua izenakin Abdoulatik Hsoubi eta Ahmed Bellahmas kargotu dira berorreatz.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOKO

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542



NAHIA ROJO

“Intentsitate baxuko” indarkeria?

"Ez badugu lortzen hau kasu isolatua ez dela ikustea, ez dugu ulertuko kasu larrienen azpian dagoen egitura"

Feminismoak denbora asko darama esaten baimenik ez duen ekintza oro eraso bat dela. Hain begien bistakoa izan daitekeen eta Zigor Kodean sexu-eraso gisa tipifikatzen den hori, beharbada, ez dago hain argi.

Denok dakigu uda honetan gertatu dena, "Rubiales kasua" hain zuzen ere. Irantzu Varela kazetari feministak dioen bezala, "intentsitate baxuko" indarkeriak naturalizatu ditugu, eta ikusgarritasuna eman eta "eraso" hitza erabili bezain laster, gizartearen zati batek eskuak burura eraman ditu, Jennifer Hermosoren erantzuna gehiegizkoa dela esanez, ospea nahi duela esanez edo zuzenean emakumezkoen futbola suntsitzen ari dela esanez. Hau kasu isolatua ez dela ikustea lortzen ez badugu, orduan ez dugu ulertuko kasu larrienen azpian dagoen egitura.

Eta hemen jokoan sartzen da sexu heziketak horrelako erasoak saihesteko duen garrantzia. Eztabaida kalean egon da, eskoletan, institutuetan, laguntaldeetan, familian, lan-eremuan... baina eskola eremuan eragiten du eta, nahiz eta batzuetan oztopoak egon, arreta jarri behar dugu errespetuan, berdintasunean, aniztasunean... azken finean, giza eskubideetan.

Gertakari horien garrantzia eta mota horretako abusuak desagerrarazteko kalitatezko formakuntzaren beharra era guztietako esparruetara eraman daiteke, izan ere, gai horrek gizarte osoari eragiten dio, kirolek politikara, eta hezkuntzan sortzen da. Eskoletan sexu heziketa integrala ezartzeak berebiziko garrantzia izan dezake norberaren sexualitatea ulertzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzeko, harreman osasungarriak eta errespetuzkoak sustatzeko, eta uda honetan gertatutakoak bezalako gertaerak ez minimizatzeke.

ARRATE LASUEN

Sallabente auzoan jaiotako ermuarra. 67 urte ditu, eta lau anai-arreben artean gazteena da. Ezkongabea, umeak zaintzen eman du bizitza guztia. Duela bi urtetik hona, iktus baten ondorioz, gurpildun aulkia behar du.

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Sallabenten bizi nintzen, errekaen beste aldean, Zaldibarren, eta oso haurtzaro polita izan nuen. Gogoan daukat Eitzara joaten ginela, bertan zeudelako aitite eta amama. Hamaika urte nituenean, Ermura etorri ginen bizitzera.

Eta gaztaroa?

Ermuak ez zeukan gaur egungoaren antza, baina nik Eibarrera joateko joera izan dut beti, eta han nituen lagunak ere.

Zer erakutsi zizuten gurasoek?

Gauza asko, tartean familiak eta lagunak duten garrantzia.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Umeekin zerikusia zeukan zerbaitetan egin nahi nuen lan, zaintzaile bezala-edo. Eta hala izan da: hamar ume zaindu ditut, denak familia berekoak. Hamasei edo hamazazpi urterekin hasi nintzen, eta erretiratu arte horretan jardun dut.

Zer zen lan horretaz gehien gustatzen zitzaizuna?

Gurasoekin eta umeekin neukan hartu-emanak. Konfiantza handia izan dugu elkarrekin: haiek nirekin eta nik haiekin.

Eta gutxien?

Ezer ez, oso gustura egon naiz.

Noiztik zaude gurpildun aulkian?

Duela bi urtetik hona, iktusa izan eta gero. Etxean eskorga batekin ibiltzen naiz, baina kalerako gurpildun aulkia behar dut.

Egoera berria onartzea kostatu zitzaizun?

Hasieran bai, baina gero onartu nuen aulkia behar



nuela eta aurrera egin nuen.

Bizimodua asko aldatu zaizu?

Peoran igogailua ipini behar izan dugu eta, ipini bitartean, Udalak etxe bat utzi zidan Abeletxen. Oso gustura egon nintzen bertan. Etxera bueltan, gauza

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Zure publizitatea

DROGETEN
ITTURRI
Enkato eta Harabide Berriak

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

batzuk egokitu ditut eta orain eroso nago bertan, oso ondo konpontzen naiz.

Erraza da Ermuan gurpildun aulkian mugitzea?

Ez. Zailena kalean ibiltzea da, Ermuko kaleak oso egoera txarrean baitaude. Espaloiak eta zebra-bideak, zer esanik ez: zenbat zebra-bide daude zero kota dutenak? Herri guztian 4 inguru. Hori da Udalari eskatzen diodan gauza bakarra: aulkian etengabe saltoka ibili behar ez izatea.

Udalak kontuan izan du zure eskaera?

Behin alkateari proposatu nion bera eta zinegotzi guztiak gurpildun aulkian eseri, eta txandaka, herria zeharkatzea. Egin zutela esan zidan, baina ez nuen sinistu.

Zuzenean eragin ezean, oharkabean pasatzen den gaia da...

Bai, baina gaur egun pertsona askok behar dute gurpildun aulkia, eta automatikoak ez direnak eramatea oso zaila da. Gainera, egoitza inguruan dagoen zebra-bidea ere ez da batere egokia.

Kostatzen zaizu laguntza eskatzea?

Ez, beharra badaukat, lasai eskatzen dut.

Nolakoa da jendearen jarrera?

Ona, eta gazteen aldetik, are hobea.

Nolakoa da zure egunerokotasuna?

Jaiki, dutxatu, jantzi, gosaldu, kalera irten, bueltatxo bat eman, kafea hartu, errekadu batzuk... Bazkaria etxera ekartzen didate eginda. Lasai bizi naiz!

Etxean zaudenean, telebista, irratia ala liburu bat nahiago?

Batzuetan telebista ipintzen dut, baina normalean irratia izaten dut piztuta. Laguntasun handia ematen dit: musika, elkarrizketak... edozer.

Zinezalea zara?

Bai, baina oraindik ez naiz ausartzen aulkiaekin zinera

"Ermuko kaleak oso egoera txarrean daude, ezpaloiak eta zebra-bideak ere"

"Hainbat lekutan egon naiz, baina New Yorkera joan nahiko nuke"

"Pazientzia izan arren, zirikatzen badidate jenio txarra daukat"

joaten.

Kirolen baten jarraitzailea zara?

Txirrindularitza jarraitzen dut apur bat. Anaiak eta lobak mundu horretan ibili izan dira-eta!

Jatun ona zara?

Bai, edozer jaten dut, baina aukeratzekotan, entsalada eta arraina. Orain gatz barik jaten ohitu naiz, eta pozik ere.

Badago egunero kale egin gabe egiten duzunik?

Goizean eta arratsaldean kafetxo bat hartu tabernaren batean.

Bidaiatzeko aukera izan duzu?

Bai, Berlinen, Portugalen, Andaluzian... leku askotan egon naiz lagunekin. New Yorkera joango nintzateke!

Zure bertute bat?

Pertsona lasaia naiz.

Eta akatsa?

Pazientzia izan arren, zirikatzen badidate jenio txarra daukat. Segituan mozten dut: berdin zait nor daukadan aurrean edo non nagoen!

Zerk eragiten dizu barrea?

Tertulia atsegin batean parte hartzeak.

Eta zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurrak. Konturatzen banaiz, akabo! Uste dut gezurrak esateko eta tranpak egiteko oso argia izan behar zarela, bestela zureak egin du!

Puntuala zara ?

Bai, eta gustatzen zait besteak ere puntualak izatea.

Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Ez, mugikorra erabiltzen dut, eta hura ere justu-justu.

Hartu duzuen erabakirik zailena?

Iktusa eta gero, bizitza aldatuko zitzaidala onartzea.



SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BARRERAKO
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA - 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

1972

E R M U A

San Pelaioko futbol zelaian erretratatu ziren urte horretako irailaren 10ean, ezkerretik eskumara begiratuta Carlos Pérez, Dani Solozabal, Jesus Mari Elgea eta Rafa Aldalur. Domeka zen eta arratsaldeko ohiko plana zen futbol partida bat ikustera joatea, Ermua taldeak ikusmira handia sortzen zuelako herritarren artean.



1965

M A L L A B I A



Argazki hau 1965eko uztailaren 31n aterata dago, Goita auzoko eskola aurrean. Argazkian agertzen dira: Elgetzuko Matilde Martinez, Goitako Emilia Malaxetxebarria, Elgetzuko Raimunda Garitaonaindia, Lapatzako Juana Ugarte Arruabarrena, Otsoneko Martina Ziarsolo, Onandiko Pilar Lazpita, Orrospengoko Balbina Milikua, Don Migel Uriarte abdaie (Miguel Baltza), eta Iñusiñako Modesto Solozabal soinu-jotaillea.

IRAGARKI LABURRAK

Antxitxiketan begirale taldea langile bila dabil. Baldintzak: euskara maila altua, DBHn errefortzu akademikoa emateko gaitasuna, umeen taldeak dinamizatzeko gaitasuna, berehalako prestutasuna. Baloratuko da: begirale titulua eta hezkuntzarekin lotutako ikasketak. Interesa dutenek: antxitxiketan@antxitxiketan.com

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsaldez. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. © 648 625 209.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Azaroaren 17a.**



Azaroaren 9an Zorionak **Igor!!** 8 urte!! Ondo pasa Ermuko amama eta aitxitxaren partez.



Urriaren 31n Zorionak **Lander!** Muxu pila etxekoen partez zure urtebetetzean.



Urriaren 9an Zorionak **Nahia** aitite Jose eta amama Marceren partez. Maite zaitugu, polit hori!



Azaroaren 20an Zorionak **Maialen** zure 7 urtebetetzean. Musu asko familia osoaren partez. Ondo pasa eguna.



1983. urtean jaiotakoek kintada ospatu berri dute. 71 lagun bildu ziren elkarrekin gozatzeko.



Urriaren 11n Zorionak **Paül!!** 3 urte bete dituzu txapeldun! Segi hain berezi izaten! Patxo handi bat ama, aita eta Gussen partez. Asko maite zaitugu!



Azaroaren 8an Zorionak **Lucía!!!** Zazpi urte bete dituzu! Asko maite zaitugu. Musu erraldoi bat amama, Libe, amatxo eta aitaxoren partez.



Azaroaren 10ean Zorionak etxeko señoitiri! 10 urte ya majita! Egun polita pasatu ta disfrutatu zuk dakizun moduan! Patxo handi bat etxekoen partez!



Zorionak Beronika eta Haizea! Haizetxu, bi urte ia! Egun polita pasatu ta muxu handi bat familia guztiaren partez, asko maite zaituztegu! Zum geburtstag!

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEREN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arrai
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell
arrai@arrai97.com | Pol.Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINO
nitida
T.943176075

Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pemorá Ricard Wines
Faustino García Martínez.

RIF
ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ZINEA

Hilaren 4tik 6ra:

"Chinas" +
"Golpe a Wall Street"

Hilaren 11tik 13ra:

"La voz del sol"
+ "O Corno"

Hilaren 18tik 20ra:

"Los asesinos de la luna"

Hilaren 25etik 27ra:

"La contadora de películas"
+ "Vidas pasadas"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 2:

"Ashkal. Los crímenes de Túnez"

Hilak 9:

"Bidasoa 2018-2023"

Hilak 16:

"Dispararon al pianista"

Hilak 23:

"Los colonos"

Hilak 30:

"La isla roja"
Ermua Antzokian. 20:30ean.

HAURRENTZAKO ZINEA

Hilak 5:

"Ninja Turtles. Caos mutante"

Hilak 12:

"Rally Road Racers"

Hilak 19:

"Doraemon. Nobitaren dinosauro berria"

Hilak 26:

"El osito Boom"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

ANTZERKIA

Hilak 10:

"Trash!",
Yllana taldearen eskutik.
20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 12 €

Hilak 17:

"Sexberdinak",
Telmo Irureta
eta Miren Arrietarekin.
20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 10 €

MUSIKA

Hilak 3:

Kontzertua: Mice + Kokein.
20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 12 €

Hilak 18:

Blues kontzertua:
Martins Aneiros Band.
20:00etan.

Lobiano Kulturgunean.

Sarrera: 10 €

Hilak 22:

Zezipia Deunaren kalejira.
18:30ean.

Hilak 24:

Zezipia Deunaren jaialdia.
20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 3 €

Hilak 25:

Kontzertua:
Markos Untzeta.
20:00etan.

Lobiano Kulturgunean.

Sarrera: 10 €

HAURRENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 4:

Ipuin-kontaketa ingelesez.
17:30ean.

Lobiano Kulturgunean.

Hilak 18:

Ipuin-kontaketa.

17:30ean.

Lobiano Kulturgunean.

Hilak 25:

Antzerkia: "Andereño",
Anita Maravillas

taldearen eskutik.

17:00etan.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 4 €

Hilak 30:

Haurrentzako jolasak:

Hiri Hezitzailen

Nazioarteko Eguna.

17:00etan.

Orbe Kardinalaren plazan.

ERAKUSKETA

Hilaren 6tik 30era:

Argazki erakusketa:
"2023ko oporrak" lehiaketara aurkeztutako lanak.
Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 11:

San Martin Azoka:
Hainbat ekitaldi.
11:00etatik aurrera.
Orbe Kardinalaren plazan
eta inguruko guneeetan.

Hilak 13:

Gaztañerre:
Gaztainen banaketa
eta musika giroa.
19:00etatik aurrera.

Hilaren 17tik 18ra:

Erdi-aroko azoka:
Hainbat ekitaldi.
Orbe kardinalaren plazan
eta inguruko guneeetan.

Hilak 18:

Magostos:
Gaztainen banaketa eta
musika giroa.
11:00etatik aurrera.
Galiziako zentroan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharbatea 8 Td. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA




**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Horts estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Horts klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
Ermua niklinika@gmail.com



irale
Horts Klinika
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



**IR
AZ**

Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen
den odontologia

La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



ONAK LEIRE MAYORA

PODLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

ERMUAN, XXXIII. SAN MARTIN AZOKA



Euskal
Birusa
Elkarteak

AZAROAREN 11n
LARUNBATA

Egitarau osoa
aldizkariaren 14. orrian!



ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



BABESLEAK



ERMUEN UDALEK
KALDUA
TUMKADA ETA
BIHINTASUN GALAK

